



GURASO BILERA

DBH 4

2024/2025 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
3. TUTORETZA
4. ORIENTAZIOA
5. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA
6. EGUNEROKO ARAUAK
7. BH-KO BATZORDEA
8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
9. OSASUN ARRETA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturte berriari buruz arituko gara (helburuak, metodologia, eguneroko dinamikak...), bai eta nerabezaroaren ezaugarrien inguruan ere.

Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Bilera horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara, zuekin egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den ATARIA astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari webgunea atala gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. **Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero**, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus.

DBH-REN CURRICULUMAREN ARLOAK ETA IRAKASLEAK

Laugarren mailan curriculumeko arloak eta irakasleak honakoak dira:

	4A	4B	4C
Tutorea	Amets Jordan + Iñigo Gastesi	Leire Gutierrez + Iñigo Gastesi	Iñaki Villar + Iñigo Gastesi
Euskara	Patxi Sarriegi		Joxan Oiz
Gaztelania	Ane Atxa		Iñaki Villar
Ingelesa	David Bumstead	Iñaki Villar	
Matematika + Ikaskuntza	Amaia Aizarna	Leire Gutierrez	
Biologia/Geologia	Beñat Arana		
Fisika/Kimika	Amaia Aizarna (x2) + Koldo Mendia		
Gizarte Zientziak	Amets Jordan		
Heziketa Fisikoa	Lorea Etxeberria		
Ekonomia	Itziar Leon		
Lan Prestaketa eta Orientabidea	Nagore Usabiaga		
Filosofia	Amets Jordan		
Teknologia	Estitxu Zubeldia		
Jarduera Prof. Apl. Z.	Beñat Arana		
Digitaliazazioa	Iñigo Gastesi		
Matematika Tailerra	Nerea Laskurain		
Frantsesa	Ane Atxa		

DBH-4Ako tutoreak: Amets Jordan eta Iñigo Gastesi

ajordan@zurriolaikastola.eus

igastesi@zurriolaikastola.eus

DBH-4Bko tutoreak: Leire Gutierrez eta Iñigo Gastesi

lgutierrez@zurriolaikastola.eus

igastesi@zurriolaikastola.eus

DBH-4Cko tutoreak: Iñaki Villar eta Iñigo Gastesi

ivillar@zurriolaikastola.eus (ajordan@zurriolaikastola.eus)

igastesi@zurriolaikastola.eus

Gainerako irakasleen helbideak Ikastolako webgunean dituzue ikusgai.

2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

Aurten, DBH 4n ikasleek ez dute taldekatze aldaketarik baina aukerako ikasgaiak izango dituzte, eta ikasgai jakin horietan taldekatzeak ikasleen aukeraketaren arabera izango dira.

Hauek izango dira DBH4n aurten ditugun hiru taldeen ordutegiak:

DBH 4A

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Heziketa Fisikoa	Euskara	Gizarte	8:00-8:55
8:55-9:50	Gaztelera	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II		Ingelesa	Gaztelera	8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Matematika	Gaztelera	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	Matematika	10:10-11:00
11:00-11:50	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	Ingelesa	Tutoretza	Euskara	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Ingelesa	Euskara	Matematika	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	13:10-14:05
14:05-15:00	Gizarte	Gizarte	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Matematika	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	14:05-15:00

DBH 4B

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Ingelesa	Matematika	Matematika	8:00-8:55
8:55-9:50	Matematika	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	Gizarte	Gizarte	Euskara	8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Gaztelera	Euskara	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	Ingelesa	10:10-11:00
11:00-11:50	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	Euskara	Tutoretza	Gizarte	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Heziketa Fisikoa	Ingelesa	Gaztelera	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	13:10-14:05
14:05-15:00		Matematika	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Gaztelera	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	14:05-15:00

DBH 4C

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Matematika	Gizarte	Gaztelera	8:00-8:55
8:55-9:50	Euskara	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	Ingelesa	Matematika	Euskara	8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Gizarte	Euskara	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	BioGeo II Ekonomia II Digitalizazioa II	Heziketa Fisikoa	10:010-11:00
11:00-11:50	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	Gizarte	Tutoretza		11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Ingelesa	Matematika	Gaztelera	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	FiKi III Teknologia BioGeo I Ekonomia I	13:10-14:05
14:05-15:00	Matematika	Gaztelera	FiKi II FiKi I Digitalizazioa I POPP	Ingelesa	Frantsesa Mate Tailerra Filosofia JP	14:05-15:00

3. TUTORETZA

Astean ordu betez izango da tutoretza saioa. Saio hauetan tutoreak hartuko du parte eta ikasleen zein taldearen jarraipena egiteko baliatzen da besteak beste. Ikasleentzat egunerokoan sortutako kezka, proposamen e.a. helarazteko espazioa da.

Tutoretza saioen helburu nagusitzat ondokoak ditugu:

- Ikaskuntza prozesuaren jarraipena eta orientazioa egitea. Batxilergoan izango diren gaien eta modalitateen eta heziketa zikloen lanketa egingo da. Gurasoei ere saio bat eskainiko zaizue.
- Norbera izaten ikastea: nor bere burua ezagutzea, norberaren estimua lantzea, autoerregulazioa lantzea...
- Elkarrekin bizitzen ikastea: enpatia eta asertibitatea bultzatzea, lankidetzaz sustatzea, kideen arteko komunikazioa bultzatzea, kideen arteko harremanak zaintzea...
- Harreman afektibo-sexualen lanketa berariaz egingo da LAHIA-NAHIA taldearen laguntzaz.
- Boluntariora landuko dugu IREKI BEGIAK eskainiko digun laguntza baliatuz.
- Ikastolako bizimodu eta antolaketan partaidetza aktiboa hartzea: DBHko Batzordea, Euskara Batzordea, ekintza berezien antolaketa...
- Bizikidetzaz eta norbanakoen askatasuna.
- Genero bortizkeriaren prebentzioa.
- Drogen kontsumoen prebentzioa AGIPAD erakundearen aholkularitzapean.
- Elkartasuna Elkarrekin landuko dugu (finkatzeke).

4. ORIENTAZIOA

Beste ikasturteetan bezalaxe, gurasoek dituzuen kontsultak egiteko, aholkularitza zerbitzua erabil dezakezuela gogorarazten dizuegu. Horretarako Hurrako orientatzailearekin harremanetan jar zaitezke te tutorearen bitartekaritza erabiliz, ikastolara deituz edo posta elektronikoz bidez.

orientatzailea@zurriolaikastola.eus

5. METODOLOGIA eta EBALUAZIOA

DBHko maila guztietan hiru ebaluazio-txosten jasoko dituzue ikasturtean zehar. Ebaluazio hauetako bakoitzean tutoreak gutxienez bi aldiz izango du ikasleen bilakaeraren berri beste arloetako irakasleengandik.

Ebaluazio jarraituaren notifikaziorako tresna Alexia izango da eta adierazitako datetan izango dituzue ikusgai txostenak

1. EBALUAZIOA	Abenduaren 9an
2. EBALUAZIOA	Martxoaren 10ean
3. EBALUAZIOA	Ekainaren 6an
OHIKO DEIALDIA	Ekainaren 23an

1.- EKI PROIEKTUA

2013/14 ikasturtean Zurriola Ikastola, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko ikastola gehienekin batera, **EKI proiektuan** murgildu zen DBHn. Proiektu honen xedea kompetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren diseinua eta aplikazioa da, beti ere euskal curriculum aintzat

hartuta.

Helburua ikasleak ezagutzak eskuratzea eta ezagutza horiek egoera baten aurrean **integratzea eta transferitzea** da. Hau da, ikasleak eskuratuko dituen edukiak eguneroko bizitzan izango dituen hainbat egoeratan, modu eraginkorrean erabiltzea eta aplikatzea.

EKI materiala paperean eta modu digitalean uztartzeko apustua egiten du Ikastolak, eredu mixto baten alde.

Batetik, funtsezko konpetentziak landu eta ebaluatuko dira, eta, bestetik, konpetentzia espezifikokoak (arloekin loturik daudenak).

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak dira. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituzte, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko ere.

8 dira Funtsezko Konpetentziak:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
2. Konpetentzia eleaniztuna
3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniariartzarako konpetentzia
4. Konpetentzia digitala
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
6. Herritartasunerako konpetentzia
7. Ekintzailtza-konpetentzia
8. Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Ikasleek arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarriko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak dira, funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak.

2.- EBALUAZIOA

EBALUAZIO HEZIGARRIA

Ikuspegi hezigarria dugu helburu prozesu osoan, ebaluazioan zehar ikasleak berak bere prozesuaren kontzientzia har dezan. Horretarako, irakaslearekin batera ikasleak bere bilakaera ezagutu eta hobetu beharreko arloak identifika ditzaten lan egiten dugu, aurrera egiteko estrategiak zehaztu ahal izateko.

EBALUATZEKO ESKALA

Ikaslearen ikas prozesua ebaluatzeke **1-4 eskala** erabiliko dugu. 1-10 eskala baina hezigarriagoa dela iritzita, zifraren beraren garrantzia lausotuz.

- | | |
|--|--------------------------|
| 1. Helburua ez du lortu: | maila XUMEA |
| 2. Helburua lortu du baina justu : | maila OINARRIZKOA |
| 3. Ondo lortu du nahiz akatsen bat eduki: | maila EGOKIA |
| 4. Oso ondo lortu du: | maila BIKAINA |

BULETINA

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ikasleak bere garapenaren berri ematen duen buletin bat jasoko du. Ebaluazio amaierara iritsi baina pixkatxo bat lehenago emango dizuegu buletin horren egituraren berri.

BERRESKURATZEAK

Lehen eta bigarren hiruhilekoen amaieran arloko ezagutzetan oinarrizko maila eskuratu ez den arloetan, berreskuratzeko beste aukera bat izango dute ikasleek, ondorengo datetan eta arratsaldez:

1. berreskuraketa probak	Abenduaren 17tik 19ra
Emaitzen jakinarazpena	Urtarrilaren 7an
2. berreskuraketa probak	Martxoaren 18tik 20ra
Emaitzen jakinarazpena	Martxoaren 24an

OHIKO DEIALDIKO PROBAK

Ikasturtearen amaieran, oinarrizko maila lortu ez duten helburuak berreskuratzeko azken aukera izango dute, ekainaren 13, 16 eta 17an. Hau kontuan har ezazue oporraldiak antolatzekeo garaian.

IAZKO ARLO PENDIENTEEN BERRESKURATZE PROBAK

Ikasle bakoitzak arloko helburu pendienteak gainditzeko hiru aukera izango ditu ikasturtean zehar.

Irailean izan dute dagoeneko ekainean negatibo ebaluatutako arloak gainditzeko aukera, eta egoera horretan dauden ikasleen gurasoek jaso dituzue dagoeneko emaitzak.

Iazkoak gainditzeko hurrengo proba egunak data hauetan izango dira:

2. ebaluazioaren barruan	Probak urtarrilaren 15ean arratsaldez Emaitzen jakinarazpena urtarrilaren 22an
--------------------------	---

3. ebaluazioaren barruan	Probak ekainaren 2an goiazez Emitzen jakinarazpena ekainaren 6an
--------------------------	---

MAILAZ IGAROTZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleak ikasturte batetik bestera igaroko dira ikasgai guztiak gainditzean, edo ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaitan dutenean. Ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean.

Salbuespen gisa, hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo ikasturtera igaroko da irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztopo ez badira hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko.

Gainditu gabeko arloren batekin mailaz igarotzen bada, ondorengo ikasturtean aukera izango du berriro ere gai horiek berreskuratzen.

JARDUERA EBALUAGARRIEN BERRIKUSKETA EGITEKO PROZEDURA

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo proba idatzia zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.

Ikasleen gurasoek edo ordezkari legalek gainera, idatzizko proben kopiak etxera eramateko eskaera egin dezakete, behean zehaztutako prozedurari jarraituz.

- Eskaera idatziz egingo dute lan edo proba zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen, [inprimaki hau](#) bete eta tutoreari edo arloko irakasleari e-mailez helaraziz.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko eta ariketa edo proba bakoitzarentzat eskaera

bat aurkeztu beharko da.

- Kopiaren erabilera pribatua izango da eta eskatzaileak azterketa ez zabaltzeko konpromisoa hartuko du.

Irakasleak, egoki baderitzo, lan edo probaren kopia eman aurretik bilera bat egingo du ikasle edo/eta guraso edo ordezkari legalarekin azterketa elkarrekin ikusi eta aztertzeko.

EBALUAZIOAREN INGURUKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA

Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren, ikasleek 2 laneguneko epea izango dute kalifikazio horien aurkako erreklamazioak aurkezteko inplikaturako irakasleari, eta honek 2 laneguneko epean erantzungo dio erreklamazioari. Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du:

- Ebaluazio partzialak:

Erreklamazioa tutorearen aurrean egingo da, eta tutoreak ikasketa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Ikasketa buruak kontsulta egin diezairoke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

- Azken ebaluazioa:

Ohiko deialdiari dagozkion kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari (zuzendaria@zurriolaikastola.eus), kalifikazioa jaso eta 2 laneguneko epean.

7. EGUNEROKO ARAUAK

Ikasleen arautegia Zurriolako web orrian duzue eskura. Hala ere, egunerokoan duten intzidentziagatik, hementxe aipatzen dizkizuegu zenbait:

- **Puntualitatea:** Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitezat hartuko da. Klase tarteetan edo jolas garaiaren ondoren gertatzen bada eskola orduz kanpo errekueratu beharko du galdutako denbora, lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn.
- Ikastolara ekartzen den materiala (sakelekoak, MP3, liburu elektronikoa,...) ikaslearen ardurapean dago, hala ere, komenigarria litzateke gisa honetako materiala ikastolara ez ekartzea.
- **Ordenagailuak** ikastolarenak dira, baina ikasleek ordenagailu bana esleituta izango dute, eta berena balitz bezala zaindu eta erabiliko dute. Gailu hauek ezingo dira etxeetara eraman, eta egunero kargatzen utzi beharko dituzte ikasleek. Dispositibo hauen intzidentziak Ikastolan bertan kudeatuko dira. Gailuarekin arazoren bat izanez gero, Ikastolako IKT Taldeak kudeatuko du arazoa eta konponketa. Konponketek sor litzaketan gastuak gurasoek beren gain hartu beharko dituzte. Ordenagailua lanerako materiala da. Irakasleak esaten duenean irekiko dute ikasleek, eta irakasleak esaten duenean itxi egingo dute. Klase tarteetan ez dute erabiliko. Ordenagailua ez dute lanerako ez den ezertarako erabiliko.
- **Sakelekoa (mugikorra) eta bestelako gailu elektronikoak** ezin dira Ikastolako eremu osoan erabili, ezta eskola-orduetatik kanpo ere. Erabiltzen ari ez dela hots egiten badu, irakasleak gailua jaso eta egunaren amaieran itzuliko dio. Erabiltzen ari baldin bada, bi egunez jasoko du irakasleak. Halaber, ezin dira besteen irudiak (ezta audio grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili. Azterketetan (edo antzekoetan), ezingo da mugikorra soinean edo mahai inguruan izan, gordeta egon beharko du, eta irteeren kasuan DBH 1etik 4ra Ikastolako

eremutik kanpora egiten diren irteeretan Ikastola barruko araudi bera aplikatuko da, eta ezingo da mugikorrik erabili. Salbuespena egingo da egonaldi batzuetan, ezaugarri bereziak dituztelako. Horietan, irakasleek hala adierazten dutenean erabili ahal izango dute mugikorra ikasleek. (gaur egun, DBH 2ko eski-bidaia, DBH 4ko ikasketa-bidaia, DBH 4ko Herberehetako elkartrukea).

- **Asistentzia-hutsegiteak.** Asistentzia-hutsegitearen justifikazioa eskola-agendan edo mezu elektronik bidez helaraziko zaio arloko irakasle eta tutoreari. **Ahal den guztietan aurrez egitea eskatzen dizuegu.**
- Eskola orduetan **Ikastolatik ateratzeko** gurasoen baimen idatzia beharko da **aldez aurretik**.
- **Aste-egitaraua.** Lehen Hezkuntzatik erabiltzen duten tresna da, eta etapa honetan honen erabilerak garrantzia berezia du. Gogora ezazue ez dela ikaslearen agenda pertsonala eta kontuan izan bi helburu nagusi dituela:
 - Batetik, ikasleak bere lanak antolatzeko tresna da, eta noizean behin horren jarraipena egitea komeni da.
 - Bestetik, irakasle eta gurasoen arteko komunikazio tresna da: bertan puntualitate gorabeherak, jokabide arazoak, asistentzia-hutsen justifikazioak... elkarri komunikatuko dizkiogu.
- Proba egunetan aurreko saiora/saioretara justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezin izango du proba egin.
- Berreskuraketa egunetan probak arratsalde izango dira. Goizeko saioen batera justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezin izango du probarik egin.

Aipatutako arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute Hurrako jangelara deituta edo jangelahurra@zurriolaikastola.eus helbidera idatzita.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.
- DBH4 mailako ikasleek 11:50etan bazkalduko dute.
- Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta Hurrako jangelan lehen aldiz gelditzen bada (DBH 1ekoa delako edo orain arte jangelakoa ez zelako), edo arazoa berria bada, osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

8. BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA

BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA: IKASLE, IRAKASLE ETA GURASOAK ELKARTZEN DITUEN BATZORDEA

Ikasleek Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzea da batzorde honen helburua. Horren bidez, ikasleak Ikastolako partaide arduradun izan daitezen bultzatu nahi da, Ikastolaren helburu nagusiak hedatu eta garatzeko ekimenak proposatuz, bultzatuz eta antolatuz.

Batzorde honetan DBHko araudia, eskola-antolakuntzako gaiak, irteerak, hutsegiteak eta, oro har, etapa honetako ikasleei dagozkien gaiak aztertu, erabaki edota dagokionari aurkeztu eta proposatzen dira.

Batzorde honen **partaideak** honela banatzen dira:

- Ikasleen ordezkariak 18 (gela bakoitzetik ordezkari bana).
- Gurasoen ordezkariak 6 (maila bakoitzetik guraso ordezkari bana).
- Irakasleen 3 ordezkari: Maddalen Acero, Aitor Artola eta Beñat Salaberria.

Ikasleen ordezkari aukeraketa

DBHko ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

Bigarren Hezkuntzako Batzordean parte hartuko duten gurasoak

Gurasoen ordezkariak ikasturte hasierako guraso bileran aukeratuko dira mailako hiru geletako gurasoen artean. Hautagaiek bi baldintza hauek bete behar dituzte:

- Euskarazko komunikazioan moldatzea
- Bileretara joan ahal izatea

Batzordeko bilerak hiruhilekoan behin izan ohi dira dira.

9. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar kompetentziekin.

Irteerak eskola-jarduerak dira, eta, horregatik, ikasle guztiak behartuta daude horietan parte hartzera. Ikasleak joan ezin duenean, beste edozein asistentzia-hutsegite bezala justifikatu beharko dute gurasoek, eta jakin bezain laster adieraztea eskertuko genizueke, irteeraren antolaketa oztopa ez dezan. Autobusaren gastua ikasle guztien artean

banatuko da. Gainerako gastuei dagokienean, diru-itzulketa egingo zaie joan ez diren ikasleei, posible den neurrian.

Ikasturtean zehar zenbait irteera egingo ditugu, hainbat helbururekin: kohesioa lantzeko, Donostiako txokoak ezagutzeko, kultur-jarduera desberdinak egiteko, kirolaz gozatzeko... Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue. Lehena, irailaren 26an egingo dugu, gelaka, eta helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea da.

DBH AMAIERAKO BIDAIA

Bidaia maiatzaren 7tik 9ra egingo dugu aurten. Lloret de Mar, Cala Canyellesera joateko asmoa dugu. Dirua lortzeko zenbait ekintza egingo ditugu urtean zehar, BHko Batzordeak erabakitzen duenaren arabera. Horrez gain, aurten 40 eurotako beste 2 kuota ordaindu beharko dituzue. Hirugarren kuotari dagokionez, ordura arte lortutako diruarekin eta bidaiaren kostearekin kalkuluak egin beharko ditugu. Kuotak kontutik pasako zaizkizue.

JARDUERA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta kompetentziak lantzeko, bai eta zeharkako kompetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk Ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo. Aurten burutuko ditugun ekintzen berri ematen joango gara.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak

elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3an
- San Tomas: abenduaren 20an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 17an
- Kaldereroak: otsailaren 7an
- Inauteriak: otsailaren 28an
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 17an

Ikasleak danborrada, kaldereroak eta inauteriak ospatzen ditugun egunetan, arratsaldeko ospakizunetara boluntario etorriko dira. Gure aldetik ekintza hauetan parte hartzeri animatu nahi ditugu, euskal nortasuna bultzatuko duen beste ekintzetan parte hartzeri bultzatuko ditugun bezalaxe.

Boluntarioki parte hartuko dutenen zerrenda aurrez eskatuko da, eta jaialdian parte hartzeko konpromisoa eskatuko zaie, baita prestatzeko egin behar diren jarduerak egiteko ere.

10. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika ematerako orduan. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen idatziz adieraz diezaguzue gure datuak eguneratu ditzagun eta ikasleari behar bezalako arreta eskain diezaiogun. Osasun-fitxarik bete ez baduzue, Osakidetza medikuek eta Hezkuntza Saileko ordezkariak prestatutako fitxa helaraziko dizuegu. Bertan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero Ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue Ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Fitxa beteta eta sinatuta helaraz diezazue tutoreari, arren.

ISTRIPUEN KUDEAKETA (BETI POLIKLINIKAN)

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleek POLIKLINIKARA joan behar dute (larrialdietara), aseguruarekin hitzartutako osasun-zentroa baita. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu parte" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta parte hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abixua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezaten. Garrantzitsua da Ikastolan gertatutako istripuen ondorioz EZ JOATEA OSAKIDETZARA. Mediku-arreta hori ez da osasun-zerbitzuan sartzen eta, ondorioz, Ikastolaren gain geratzen da eta Osakidetzak ikastolari zerbitzua kobratuko dio.

Ohar honen gaztelerazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión de castellano de este documento está disponible [aquí](#).